

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 90/2019 Foru Agindua, apirilaren 8koa, Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 1. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa ematen duena

Erreferentziako aldaketa puntualaren tramitazioa Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du.

Prozedura horren barruan, 2019ko urtarrilaren 7an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak indarreko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 1. aldaketa puntualari buruzko ingurumen txosten estrategikoa jaso zuen Bilarko Udalarengandik, ingurumena ebaluatzeko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera, eta baita hirigintza agiria ere.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, kontsultak egiteko faseari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 45 egun balioduneko epearekin, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko apirilaren 3an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (18/138 espediente).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Erreferentziako aldaketa puntualaren xedea da kalifikazioa aldatzea EL.02 arean ("Bizitegi eremua, lehenengo zabalgunea") dauden lurzati batzuei, EL.06 arean ("Hirigunearen eta lehenengo zabalgunearen arteko eremua") sar daitezzen. Hala, lurzati horietan, "Oso dentsitate txikiko familia bakarreko eraikin bakartuen a.61 azpizona"ko araudiaren ordean, "Hirigune zaharretako a.61 azpizona"ko araudia izango litzateke aplikagarri; eta, horri esker, aipatutako lurzatiaren etxebizitzak eraiki ahal izango lirateke. Izan ere, egungo kalifikazioarekin ezinezkoa da hori egitea, hirigintza plangintzaren araudian ezarritako baldintzak urratuko bailirateke.

Halaber, aldaketa puntualarekin, errata bat zuzendu nahi da Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren ordenantzen testuan. 2.1.1.2. artikuluan, "Arau berezia EL.02 eremurako (bizitegi eremua, lehenengo zabalgunea)"; behin eta berriz hau aipatzen denean:


– 1.5.2.8 artikulua. "a.61 azpizonetako eraikuntza eta erabilerarako ordenantza orokorra"; hau esan nahi du, egiaz:

– 1.5.2.6 artikulua. "a.61 azpizonetako eraikuntza eta erabilerarako ordenantza orokorra"

1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Aldaketa puntualaren eremuak 2.607,75 metro koadroko azalera du, eta 1 poligonoko 1, 2, 3, 4 eta 5 lurzatiek eta 5 poligonoko 585 eta 586 lurzatiek osatzen dute.

Beheko irudian, aldaketa puntualaren eremua urdinez adierazi da:



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denaren arabera, guztira bi aukera hartu dira kontuan:

– “0” aukera (hautatu ez dena): Ezer ez egitean datza. Hortaz, ekimena ez litzateke gauzatu eta aldaketa puntualaren xede diren lurzatiaren jabeen egungo beharrak ez lirateke beteko. Ukitutako lurzatiak “Oso dentsitate txikiko familia bakarreko eraikin bakartuen a.61 azpizona”ko araudiaren mende daude. Horren ondorioz, lurzatiak bertan behera utzita geratu lirateke, aldaketa puntualaren eremuko lurzatiaren ezin baita egin araudi horrek baimendutako eraikinik.

– “1” aukera (hautatu dena): Proposamen honen bidez, Bilarko herrigunearen mugen barruan hondar eremu natriatuak sor daitezela eragotzi nahi da; eta, horrekin batera, aldaketa honek ukitzen duen “El Coscojal” kaleko fatxadaren zatiari jarraipena eman nahi zaio. Horretarako, hau proposatzen da: kalifikazioa aldatzea EL.02 arean (“Bizitegi eremua, lehenengo zabalgunea”) dauden 1 poligonoko 1, 2, 3, 4 eta 5 lurzatiei eta 5 poligonoko 585 eta 586 lurzatiei, EL.06 arean sar daitezela (“Hirigunearen eta lehenengo zabalgunearen arteko eremua”). Horri esker, aipatutako lurzatiaren etxebizitza atxikiak egin ahal izango dira. Bestalde, Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren ordenantzen testuan dagoen errata zuzendu nahi da aldaketaren bidez (ikus txosten honen 2.1 atalaren amaiera).

1. aukera hautatu da. Izan ere, sustatzaileak aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen den bezala, aldaketak Bilarko herrigunean etxebizitzak eraikitzeko aukera ematen du, bai eta etxebizitza horiekin lotutako erabilerak baimentzeko ere. Horrek herria finkatzen lagunduko luke, eta gainera, neurri batean, Bilarko udalerrian dagoen lurzorua beharrik gabe okupatzea eragotziko luke.

2. Kontsulta egiteko fasearen laburpena

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2019ko urtarrilaren 9an eman zion hasiera eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, prozedura arautuari jarraituz. Lauki honetan, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkartearen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Bilarko Udala	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/138 espedientean eta www.araba.eus webgunean daude jasota):

- Arabako Foru Aldundiaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi duenez, “aldaketa honen xede diren lurzatietan orain arte ez dago hondakin edo egitura arkeologikoak daudelako frogarik. Edonola ere, aipatutako lurzatietan edozein arkeologia aurkikuntza eginez gero, horren berri eman beharko zaio berehala Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari”

- Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txostena egin du, eta hor, honako hau ondorioztatu du: Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 1. aldaketa puntualaren eremua udalerriko herrigunera mugatzen denez, “aldaketak ez du inolako eraginik lurzoru ez hiritarrean, ez eta nekazaritza eta abeltzaintza jardueran ere”. Halaber, Zuzendaritzaren ustez, “aldaketak ez du eraginik Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan ere”

- URA – Uraren Agentziak 2019ko urtarrilaren 16an txostena egin du, eta bertan zehazten du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaiola, egokitzat joz gero gaiaren gainean informatzeko, betiere abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoarekin bat etorritik.

- Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du aldaketa puntualaren eremuan ez dagoela eraginik kultura ondarean.

- Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txostena egin du, zeinean hau adierazten baitu: “proposatutako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketak ez du zuzeneko eraginik katalogatutako elementuetan, eta, ikuspegi horretatik, ondoriozta daiteke ez duela eraginik Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren eskumenen esparruan”

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenean lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan

dituzten lurzoruen inbentarioan." Era berean, honela dio: "kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, 4/2015 Legearen, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 22. artikuluan ezarritakoa betez".

3. Aldaketa puntualaren ingurumen inpaktuen deskripzioa

Ingurumen txosten estrategikoaren 3.2 atalean ("Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa puntualetik aurreikus daitezkeen ingurumen ondorioak") jasotzen denez, uste da aldaketa puntualak ez dakarrela ingurumen ondorio esanguratsurik idatzita dagoen bezala. Izan ere, aldaketa puntualak ukitutako eremua guztiz urbanizatutako ingurune batean dago, eta ez du ingurumenaren ikuspegitik garrantzitsuak diren elementurik; fruta arbola gazte batzuk eta olibondo bakanen bat baino ez, egun dauden eraikinetako lorategi eremuetan. Edonola ere, aldaketa horrek beste ingurumen ondorio batzuk izango lituzke onesten denean; hau da, gaur egun dauden eraikin batzuk eraisteko lanak hasten direnean eta etxebizitza berriak eraikitzen direnean. Aldaketa puntual hau onestearen ondorioz gauza litezkeen eraisketa eta eraikuntza obrek inpaktu batzuk ekarriko lituzkete, eta beraz, ingurumen ondorioak minimizatzeko, ingurumenean integrazteko neurri egokiak hartu beharko lirateke.

Bestalde, erreferentziako esparruan etxebizitzak garatu eta egiteak zenbait aldaketa ekarriko lituzke uraren hornidura eta saneamenduaren eskaeran. Hortaz, uraren arloan eskumena duen organoak horri buruz agintzen duena bete beharko da.

Azkenik, ingurumenaren ikuspegitik positibotzat jotzen da Bilarko herrigunean dagoen bizitegi lurzorua aprobetxatu nahi izatea. Izan ere, horri esker hiri bilbea finkatuko da, "El Coscojal" kaleari jarraipena emanez, eta gainera, kaletik ikusten diren mehelin itsuen arazoa konponduko da. Ildo horretatik, aldaketa puntual honek zaildu egiten du herriguneko hiri bilbetik kanpo dagoen lurzorua okupatzea.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Honako baldintza hauek ezarri dira "Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 1. aldaketa puntuala" hirigintza agirian sartzeko:

– Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa puntuala garatzeko jarduerak ekar ditzaketean eraispen eta eraikuntza obrak gauzatzeko aldiari, ontzi estankokoak, biltegi iragazgaitzak edo lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko bestelako sistemak gaitu beharko dira; galarazita egongo da erabilitakoak isurtzea, eta baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: sor daitezkeen hormigoï hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimendutara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraiste lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

– Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa puntuala garatzeko jarduerak ekar dezaketean edozein eraikuntza lan gauzatu aurretik, sustatzaileak uraren arloan eskumena duen organoari kontsulta egin beharko dio, hornidura eta saneamenduarekin lotuta egin beharreko izapideen eta bete beharreko baldintzen berri eman diezaion.

Horregatik guztiagatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 40. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Bilarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 1. aldaketa puntualaren" ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin, ingurumen ebaluazioari buruzkoarekin, bat etorritz, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadin agintzea.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 8a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN